

# 2024 EUSKADIKO JUNIOR TXAPELKETA

Zegama 01/06/2024

kms inscritos 136

EKAINAK 1  
EUSKADIKO JUNIOR  
TXAPELKETA



Nafarroa Klasikoan junior mutilen mailako Euskadiko Selektzioak aldarrikatu zuen euskal txirrindulari sena ihesaldien bila joatean. Horrela ikasi zuten gaur egungo gazteek duela 20 urte talde laranja kirol honen gorenean ikusten. Telebistan ikasitakoa praktika eramanda larunbatean Euskadiko Txapelketan bizi-bizi atera ziren hainbat talde ihesaldia osatzeko helburuarekin lehenengo kilometroetan. Lan horretan protagonismo handia hartu zuten AMPO taldeko etxeko txirrindulariek. Zegamako pasaeran, 11. kilometroan, seikote bat osatu zen lasterketa buruan AMPO taldeko Ander Otegi Ariztimuñorekin eta Kepa Ormazabal Galdosekin, Alimco taldeko Iñigo Uri Cuadrarekin, Invitec taldeko Arkaitz Suso Arakamrekin, Baque taldeko **Oskitx Eiguren Santamariarekin** eta Iruki taldeko Unax Betelu Menciarekin.



Sei txirrindulariek azkar batean ireki zuten tarte eguneko lehenengo igoyeraren bila. Liernin gora Suso ihesalditik geratu zen eta Alimco taldea tropelean indartsu jarri zen eta diferentzia behera eraman zuten arren aurrekoen kemenak lortu zuen ihesaldia bizirik irautea. Horrela izan zen Lierniko hurrengo bi igoyeretan ere, ez ordea hirugarren Lierniko jaitsieran. Bertan tropeletik kontraeraso talde garrantzitsu bat osatu zen izen nabarmenekin. Boskote horretan zeuden: **Marco Martin Cuevas** (BAQ), Hodei Muñoz Gabiña, (ALI), Eneko Olveira Rodrigo (JRG), Ekhi Uriarte Leizea (ALI) eta Eñaut Urkaregi Sanz (GTO). Boskote hau azkar hasi zen ihesaldiak zituen 2 minutuak berreskuratzen Barbariko igoyeraren hasieran. Barbarin gora kontraeraso taldetik **Martin** eta Muñoz bakarrik geratu ziren ihesaldiko boskotea elkarrekin mantentzen zen bitartean. Barbariko jaitsieran Ander Otegi zegamarra, mila aldiz jaitsiera hori entrenatzen egin ostean, eraso jo zuen eta **Oskitx Eiguren**ekin batera aurrera egin zuen. Atzetik Ormazabal eta Betelu geratu ziren lotura lanak egiten eta talde nagusian 12 txirrindulari ziren minutu bat baino gehiagoko galerarekin.

Barbarira azken igoyeran Otegi jaitsieran erakutsitako trebeziari aurreratu zuen Oskitx Eiguren eta kilometro t'erdiren faltan eraso jo zuen bizkaitarrak. Ander Otegi uneoro 15 segundutara mantendu zen arren ezin izan zuen balentria lortu etxean txapeldun izanda eta maillota eta txapela Baque taldeko txirrindulariak eskuratu zituen. Zilarrezko domina zegamarrarentzat izan zen eta Hodei Muñozek itxi zuen podiuma brontzezko dominarekin.

1 <b>EGUIGUREN SANTAMARIA Oskitx</b>	JUN-2 BAQUE TEAM	2h16'45 -
2 OTEGI ARIZTIMUÑO Ander	JUN-2 AMPO	+0:21
3 MUÑOZ GABIÑA Hodei	JUN-2 ALIMCO - CAMPAGNOLO	+1:42
4 <b>MARTIN CUEVAS Marco</b>	JUN-2 BAQUE TEAM	
5 ORMAZABAL GALDOS Kepa	JUN-2 AMPO	+1:43
6 URIARTE LEIZEA Ekhi	JUN-1 ALIMCO - CAMPAGNOLO	+1:50
7 <b>GARMENDIA PARDO Aritz</b>	JUN-2 BAQUE TEAM	
8 IÑARRA MATEO Beñat	JUN-2 ULMA - ALOÑA MENDI	
9 IRIARTE SANZ Igor	JUN-2 LIMOUSIN KARTOIAK - ORIAKO	
10 <b>ARANAZ SECO Markel</b>	JUN-1 BAQUE TEAM	
11 BETELU MENCIA Unax	JUN-2 IRUKI DONOSTIALDEA BIZIKLETAN	
12 URCAREGUI SANZ Eñaut	JUN-1 GT TOLOSA/DANENA	+2:04
13 CARDONA VALDAJOS Joan	JUN-1 IPAR MAQUINA - DIMAQ	
14 <b>SANZ ESTEIBAR Mikel</b>	JUN-1 MMR ACADEMY	
15 OLVEIRA RODRIGO Eneko	JUN-2 JRG NORCLAMP OTXE	+2:18
16 ARENAZA MENDIJUR Egoi	JUN-1 ARABARRAK K.T.	+2:30
17 <b>MARIN BUSTINZA Aimar</b>	JUN-2 ALIMCO - CAMPAGNOLO	+2:36
18 <b>MORAN ARANZABAL Unai</b>	JUN-1 CAFE DROMEDARIO-FLOTAMET	
19 MUNDUATE AIZKORRETA Peio	JUN-1 JRG NORCLAMP OTXE	
20 SAINZ ARRIOLA Beñat	JUN-1 VIVEROS SAN ANTON-MARDU	
21 OTEGI ARRIZUBIETA Unax	JUN-1 IRUKI DONOSTIALDEA BIZIKLETAN	
22 UNANUE URRESTI Aratz	JUN-1 VIVEROS SAN ANTON-MARDU	
23 LARRAÑAGA ARAKAMA Hegoi	JUN-2 AMPO	
24 CABANILLAS MILETA Ethan	JUN-2 AMPO	+2:58
25 URIA CUADRA Iñigo	JUN-2 ALIMCO - CAMPAGNOLO	+3:17

27 ARTETA TRASCASA Nicolas  
29 GARCIA ARRIETA Iurdan  
32 LAZPITA BARAIAETXABURU Txaber  
35 MONASTERIO ZAMALLOA Markel  
38 ARANBURU URRUTXURTU Kimetz  
39 BONILLA BIDAGUREN Paul  
40 ARANZABAL DOMINGUEZ Mikel  
42 MARTIN CALLEJA Aketx  
43 MARTIN MORAN Saul  
44 HERAS VIÑAMBRES Dani  
48 CHACARTEGUI GOMEZ Ekaitz  
53 ARANAZ IZAGIRRE Ekain  
55 GARCIA MALBADI Unai  
56 IRAZABAL PIKATZA Gorka  
67 VARONA SANCHEZ Andeka  
68 GARCIA QUIROGA Borja  
69 AGIRRE SALABERRIA Oier  
70 DUÑABEITIA ALDAZABAL Ander  
76 MURGA ALKORTA Beñat  
79 ARRIZABALAGA LERTXUNDI Peio  
79 clasificados

JUN-2 GASTRONOMIABASKA-LIFTRA-ROSM +4:18  
JUN-2 F2 INFORMATICA +4:31  
JUN-2 CAFE DROMEDARIO-FLOTAMET +4:56  
JUN-2 F2 INFORMATICA +5:05  
JUN-2 CAFE DROMEDARIO-FLOTAMET +5:08  
JUN-2 AL.GARBI-RK-URDAIBAI  
JUN-2 CAFE DROMEDARIO-FLOTAMET +5:21  
JUN-2 ROWER-VOLVO ARREGUI-CYA +5:51  
JUN-2 GASTRONOMIABASKA-LIFTRA-ROSM +6:22  
JUN-2 GASTRONOMIABASKA-LIFTRA-ROSMIL  
JUN-2 LOIUMAT-PG +6:50  
JUN-1 AL.GARBI-RK-URDAIBAI +7:16  
JUN-2 F2 INFORMATICA +8:24  
JUN-1 AL.GARBI-RK-URDAIBAI 8:53  
JUN-1 MENDIZ MENDI / OMAR FRAILE ES. +12:05  
JUN-2 MENDIZ MENDI / OMAR FRAILE ES.  
JUN-1 CAFE DROMEDARIO-FLOTAMET +12:27  
JUN-2 F2 INFORMATICA  
JUN-1 LOIUMAT-PG +14:07  
JUN-1 CAFE DROMEDARIO-FLOTAMET +14:25